

Bezeroa nahiko zabala izango da, merkatuan gehien saltzen diren tailak salduko ditugu, taila handiko arroparik ez. Kirolarientzako arropa edo kalera ondo jantzita irteteko arropa edukiko dugu eskuragarri. Gure bezeroa berak behar duen arroparen tailakoa edo gustuko duen tela motaren arabera izango da, horrez gain, produktuaren prezioak eragina izango du. Gainera, ingurumenarekin kontzientziatuta dagoen bezeroa izango da batik bat.

Deskontua: (deskontu hauek jendea erakartzeko intentzioarekin egingo ditugu, horrela, jende gehiago erakarriko dugu).

Bidalketa gastuak egongo dira, 5€ koa.

50€ baino gehiago kontsumitzen badute bidalketa gastuak ez dira egongo.

Gure dendan 5. erosketara iristean, hurrengo erosketan %20 ko beherapena izango dute.

8 aldiz erosiz gero, hortik aurrera egindako erosketan %5 eko beherapena izango dute.